

An abstract painting featuring a large, textured red shape resembling a stylized tree or flame in the center-left. To its right, there are clusters of yellow and orange shapes that look like flowers or leaves. The background is composed of various shades of green, blue, and purple, creating a sense of depth and movement. The overall style is expressive and non-representational.

Eguren

1927-1976

Moises Eguren
1927-1976
Bergara

AROZTEGI ARETOA
Atzera begirako erakusketa | Exposición retrospectiva

Urriaren 11tik 27ra | Del 11 al 27 de octubre
BERGARA 2019

Edizioa [Edición](#)
Bergarako Udala [Ayuntamiento de Bergara](#)

Argitaraldia [Edición](#)
2019ko urria [Octubre 2019](#)

Idazlanak [Textos](#)
Jose Luis Azkarate, Xabier Agirre, Abdón Juaristi, Joaquín Loidi,
Ambrosio Ugalde, Rikardo Azkargorta, Bingen de Pedro

LG [DL](#)
SS-1009-2019

Diseinua [Diseño](#)
Antton Arrillaga, Jose Luis Azkarate, Xabier Agirre
K3 Inprimategia

Itzulpena [Traducción](#)
Udaleko Euskara Zerbitzua

Argazkiak [Fotografías](#)
Lexeia Larrañaga, Alex Gutiérrez

Argazki eta dokumentuen fondoa [Fondo fotográfico y documental](#)
Bergarako Udal Artxiboa [Archivo del Ayuntamiento de Bergara](#)
Argazki fondoak [Fondos fotográficos](#)
Juan Idigoras fondo [Fondo Juan Idígoras](#)

Jose Maria Eguren bilduma [Colección José María Eguren](#)

Azaleko irudia [Imagen de la portada](#)
Paisaia, zatia [Paisaje, detalle](#)

Kontrazaleko argazkia [Foto contraportada](#)
Eigurenen erretretaula [Retrato de Eguren](#)
Egilea [Autor:](#) Juan Idigoras

Antolakuntza [Organiza](#)
BEART Bergarako Artisten Elkartea

Esker onak [Agradecimientos](#)
Jose Maria Eguren, Lorentzo Laskurain, Sebas Agirre, Miren Agirre,
Arantzazu Oregi, Arantzazu Unanue, Miren Azkarate, Mila Etxaniz,
Idoia Etxarri

Erakusketaren komisarioak [Comisarios de la exposición](#)
Anton Arrillaga, Jose Luis Azkarate, Xabier Agirre

Inprimategia [Imprenta](#)
K3 Inprimategia



Moises Eguren ezagutzen hasteko.

Eguren pintorearen lana biltzeko atzera begirako erakusketa hau antolatu dugunok -katalogo honen argitalpena gertatu dugunok-, lagunak izateaz gain, esker onekoak gara. De-nok ezagutu genuen Moises Eguren, nahiz eta egoera eta une ezberdinetan izan, eta topaketa haietatik oso oroitzapen onak gordetzen ditugu. Horrenbestez, haren lana berraztertuz eta gozatuz, gogora ekartzen dugu berriz.

Aproximación a Moisés Eguren.

Los que hemos organizado la exposición retrospectiva de la obra de Eguren y los que hemos preparado la edición del presente catálogo, somos amigos y personas agradecidas que coincidimos con Moisés Eguren en situaciones y momentos distintos, con un grato recuerdo en nuestras memorias de aquellos encuentros. Con el repaso y el disfrute de su obra, le recordaremos.

Moises Eguren.
Argazkia / Foto: Juan Idigoras.
Bergarako Udal Artxiboa.



Moises Eguren pintore-alderdiaren profil bat.

Moises Eguren Bergaran jaio zen, Barrenkaleko 8. zenbakian, 1927ko otsailaren 7an. Lau anai-arreben artean hirugarrena zen, eta Jose Maria txikiena. Gero, bizitokia aldatu eta Burdiñatera joan ziren, aspaldiko "Cinema Vergara"ren ondora –"Cinema Vergara" 1930. urtearen inguruan eraiki zen, bertan umeentzako kateke-sia eta zinema-emanaldiak emateko-. Garai har-tan, Moisesen aita arduratzen zen pelikula-ko-

Un perfil sobre Moisés Eguren pintor.

Moisés Eguren nació el 7 de febrero de 1927, en el número 8 de Barenkalea de Bergara. Fue el tercero de cuatro hermanos, de los que José María es el pequeño. Posteriormente se trasladaron a vivir a Burdiñate, junto al antiguo Cinema Vergara, edificado hacia 1930 como local para impartir catequesis y facilitar el acceso al cine de los niños. En aquella época, su padre era el encargado del manejo de las copias de

pien erabileraz eta zinea emateko makineriaren funtzionamenduaaz.

Ondo gogoratzen dute txiki-txikitatik agertu zuela arte-zaletasuna eta artista-sena. Eskola Nazionaletako ikaste-ordutegia bete ondoren -Elias Azpiazu jaunak ematen zituen eskolak-, merienda orduan etxearen beti zegoen marrazten. Fintasun berezi hori idazterakoan ere antzeman ten zitzzion, bai eta mezatarako sermoiak geratzerakoan ere. Oso gizon sentibera izan zen.

Oso gazte sentitu zuen apaiz izateko deia eta hamaika urterekin Euskadiko Apaiztegian sartu zen -Gerra Zibilean, apaiztegia Gasteizetik Bergarara ekarri zuten behin-behinekoz, gerra garaian Gasteizeko apaiztegia gerra-ospitale bi-hurtu baitzuten-. Handik bi urtera, berriz, gerra bukatutakoan, Gasteizeko apaiztegira joan zen. 1950. urtean eman zuen meza berria.

Gasteizeko Apaiztegian egon zen garaian, han topo egin zuen San Roman argazkilari donostiarrekin; biok arte-zaleak. Han ere, Ricardo Alberdiren elkarte zen; nahiz eta bokazioa ge-roago etorri, Alberdi gizartearekiko konpromiso handiko gizona zen, Gazteria Langile Katolikoen sustatzailea. Egurenak Alberdiren harreman estua izan zuen; gizarteari buruzko kezkak par-tekatu zituzten.

Bergaran iragan zituen udaldietan, sarri joaten zen Simon Arrietaren estudiora. Aurrerago, hirurogeiko hamarkadan, Arrieta erretratu bat egin zion, kasulla berdea jantzia. Halaber, harreman estua eta egunerokoak ere mantendu zuen beste pintore bergarar hauetan: Joakin Loidi, Fernando Azkargorta eta Francisco Leturia.

Madrilen egonaldi bat egin zuen eta han, Eduardo Peña Ruiz maisuak Plaza Nagusian zuen aka-

películas y del funcionamiento de la maquinaria de proyección de cine.

Recuerdan su afición y su alma de artista ya desde muy pequeño. Tras las clases en las Escuelas Nacionales impartidas por D. Elías Azpiazu, junto con la merienda, en casa dibujaba constantemente. Esta finura especial se le apreciaba también al escribir o incluso al hacer los sermones de misa. Fue un hombre muy sensible.

Su vocación sacerdotal fue temprana y, a la edad de once años, ingresó primero en el Seminario Vascongado trasladado provisionalmente durante la Guerra Civil a Bergara, porque el de Vitoria-Gasteiz se usó como hospital de sangre durante la contienda. Dos años después, finalizada la guerra, se trasladó al de Vitoria Gasteiz. Cantó misa en 1950.

Durante su etapa en el Seminario de Vitoria Gasteiz coincidió con el fotógrafo donostiarra San Román, con el que compartía aficiones artísticas. Coincidio también con Ricardo Alberdi, de vocación más tardía, pero hombre de gran compromiso social e impulsor de las Juventudes Obreras Católicas, con el que mantuvo una estrecha relación y compartió la inquietud social.

En sus estancias de verano en Bergara, frecuentaba el estudio de Simón Arrieta, que más adelante en la década de los sesenta, le pintó un retrato vestido con casulla verde. Mantuvo estrecha y cotidiana relación con los también pintores bergereses Joaquín Loidi, Fernando Azkargorta y Francisco Leturia.

Realizó una estancia en Madrid, acudiendo a clases de pintura a la academia de Eduard-



demian, pintura-klaseetara joan zen; Joakin Loidi ere aurretik egonda zegoen akademia horretan.

21 apaiz Bergaran / 21 sacerdotes en Bergara:

Atzoko ilaran, ezkerretik eskuinera, / Fila de atrás, de izquierda a derecha:
Joaquín Murua, Juan Atxotegi, Juan Arretxe, Josu Mugika, Pablo Garaikoetxea, Ignacio Atxotegi, Jose Antonio Arratibel, Pedro Garitano, Buenaventura Ariznabarreta, Jose María Azkarate, Balbino Ayerbe.

Erdian / En medio:
Antonio Eizagirre, Serafin Esnaola.

Aurreko ilaran / Fila delantera:
Leandro Igartua, Jose M^a Eguren, Eleuterio Iñarra, Imanol Sorondo, Joaquín Gastezi, Xabier Azurmendi, Moises Eguren, Miguel Altuna.

1959. urtetik aurrera, Bergarako Santa Marina parrokiara bidali zuten. Apaiz-konpromisoak bete ondoren -eguneroko meza eta katekesia- eta Bergarako Seminarioan zituen irakaskuntza-betebeharrok bete ondoren, atera ahal izaten zuen aisialdi-apurra pinturarako erabiltzen zuen.

Hasierako garaian familiako etxeán pintatu zuen -Santa Ana jauregiaren alderako bistak zituen terrazadun etxeán-, baina gero, handik aurrea, estudio xume batean, Simon Arrieta plazako 3. zk.ko blokearen gaineko ganbaretako azken solairuan; Bergarako hirigune historikoaren goi-panoramika ederrak zituen.

Jose M^a Eguren anaiari egindako elkarritzketa.

do Peña Ruíz en la Plaza Mayor, a la que también había asistido con anterioridad Joaquín Loidi.

Desde 1959 estuvo destinado en la parroquia de Santa Marina de Bergara. Tras sus compromisos como sacerdote que incluían la misa diaria y la catequesis, después de sus obligaciones docentes en el Seminario de Bergara, el tiempo libre que rescataba lo dedicaba a la pintura.

Pintó en una primera etapa en su casa familiar, con aquella terraza con vistas al Palacio de Santa Ana y más adelante, desde un sencillo estudio en la última planta de camarotes del bloque de la plaza Simón Arrieta nº 3, con excelentes panorámicas sobre el casco de Bergara.

Entrevista realizada a su hermano José M^a Eguren.

Haren lagun izandako Joakin Loidi beragarako pintorearen oroitzapena.

“

...biok genuen pinturaren-ganako interesa, eta horrek bihurtu gintuen lagun.

El recuerdo de su amigo y pintor bergarés Joaquín Loidi.

“

...el interés que ambos concedíamos a la pintura, nos convirtió en amigos.

Artearen espiritualtasuna eta apaiz-bokazioa

Nire ustez, On Moiseseik umetatik zuen pintura-zaletasuna, eta apaiz izateko prestakuntza-bidean ere berarekin jarraitu zuen Gasteizko Elizbarrutiko Apaiztegian. Historia errepasatuz gero, ikus dezakegu artea espiritualki aberastu egiten dela sinismen ezberdinaren helburu erlijiosoekin uztartzen denean, hau da, arteak eliza ezberdinaren mezu ideologikoak eta erlijiosoak azaltzeko bere baliabideak ia-ia didaktikoki era-biltzen dituenean. On Moisesentzat, artea ere bere apaiz-bokazioko zerbitzuaren parte izango zen.

Gizartearenaganako kezkak

On Moises apaiz arduratsua zen; bizi zuen garaian murgilduta zegoen; ondo ezagutzen zuen. Ilusio handiz ikusten zituen Eliza Katolikoak sus-tutako Kontzilio Vatikano II.ak zekartzan ire-kiera-mugimenduak, bai eta erakunde erlijiosoa apostoliko berrien sorrera ere. Beste asko beza-la, gu ere kezkatuta geunden Burgosko proze-su lotsagarrian auzipetutakoei frankismoak zer nolako irtenbidea emango ote zien zain; bai eta kezkaz itxaron ere Bizkaiko eta Gipuzkoako apezpikuek elkarrekin prentsara bidali zuten gutun pastoralaren aurrean -non exijitzen zuten gerra-kontseiluan zeuden bi apaizek epai-ka-ta irekia izatea- zer nolako erantzuna emango

Sobre la espiritualidad del arte y su vocación sacerdotal

Pienso que D. Moisés tuvo esta afición desde niño y que le acompañaría también en su formación religiosa como sacerdote, en el Seminario Diocesano de Gasteiz. El repaso de la historia nos permite observar cómo el arte se enriquece espiritualmente con su vinculación a los fines religiosos de las creencias, cuando utiliza sus medios para exponer, casi didácticamente, los mensajes ideológicos y religiosos de las diversas iglesias. Para D. Moisés el arte también formaría parte en el servicio de su vocación sacerdotal.

Sobre sus inquietudes sociales

D. Moisés como sacerdote responsable y cono-cedor del presente en el que estaba inmerso, mantenía una gran ilusión por los movimientos que impulsaba la Iglesia Católica con ocasión de la apertura del Concilio Vaticano II, conjunta-mente con la creación de nuevas formacio-nes religiosas apostólicas. Como otros muchos, compartíamos la preocupación por la solución que el franquismo quisiera dar a los enjuiciados en el escandaloso proceso de Burgos; también de la respuesta que el gobierno daría a la carta pastoral que, conjuntamente enviada por los obispos de Vizcaya y Guipúzcoa y publicada en la prensa, exigía un juicio abierto en el consejo

ote zuen gobernuak; izan ere, gutun horri Es-painiako apaizgoak ordurako ezezkoa emanda zion.

Bergarako pintura-eskola

Garai hartan ireki zen eskola, eta Simon Arrieta eta Migel Okina maisuen erreferentzia izan zuen une hartan begiak non jarri erabaki beharra zuten haiak; hau da, zein arte-tendentziari jarraitu? Parisetik zetozenei edo New Yorketik zetozenai? Nire ustez, orduko pintore zale bergarar ia guztiek Paris aukeratu genuen, Europakoa zelako -nahiz eta orduan oraindik guretzat ezezaguna izan- eta Parisen bertan zutelako sorlekua munduan barrena gailentzen ari ziren arte-mugimendu nagusienek -hainbat eta hainbesteri iluratzen zutenek-.

Eigurenen zentzu kritikoa eta haren marrazkiak

Etxeko estudiora On Moisesek egiten zizkidan ohiko bisitaldietan, den-denaz hitz egiten genuen, gai gorenei eta arruntenei buruz, eta bitartean On Moisesek marraztu egiten zuen, eta nik nire azken lanak erakusten nizkion. Horietako bisitaldi batean, nire emaztearen eta seme-alaba txikien erretratu interesgarri batzuk egin zituen; han, erretratu haietan, nabari agertzen da zelako behaketa-gaitasun handia zuen, eta marrazteko zuen bizkortasun eta erraztasuna.

Eta kritika egiteko orduan ere, On Moises oso-oso positiboa zen. Erakusten zioten edozein obraren aurrean, sentiberatasunez, argudioak emanet eta entendimentuz, hasieran obra guztia osotasunez onartzan zuen; eta gero, arrazoia emanet eta egilearen autoestimua ez mintzeko arreta osoa jarrita, hobetu ahal ziren koadroaren alderdi batzuk zehazten zituen. Eta horrela behin eta berri. Beti egilearen buru-estimua urratu gabe; izan ere, desadostasunak egonda ere,

de guerra para los dos sacerdotes incluidos en él. Carta, a la que hermandad sacerdotal española ya había contestado negativamente.

Sobre la escuela de pintura de Bergara

El nacimiento de la escuela en su época, con la referencia de dos maestros como Simón Arrieta y Miguel Okina, en un momento que implicaba la necesidad de saber adónde mirar, para poder elegir las tendencias artísticas a seguir entre París o Nueva York. Creo que la casi totalidad de los bergareses aficionados de entonces, elegimos París por europea, aunque todavía desconocida, y cuna de los principales movimientos artísticos que imperaban en el mundo y que tanto y a tantos seducían.

Sobre su sentido crítico y sus dibujos

En las acostumbradas visitas que D. Moisés me hacía en mi estudio de casa, a la vez que charlábamos de lo humano y de lo divino, él dibujaba mientras yo le mostraba mis últimos trabajos. En una de estas visitas fue cuando hizo unos interesantes retratos de mi mujer y mis pequeños hijos, donde queda patente por su ejecución la amplia capacidad de observación demostrando el rápido progreso y la facilidad de su dibujo.

Y en esta labor de crítica, D. Moisés resultaba enormemente positivo. Con sensibilidad, argumentos e inteligencia, comenzaba por aprobar el total de la obra expuesta, para luego, también razonadamente y con cuidado de no herir la autoestima del autor, señalar en alguna de las partes del cuadro la posibilidad de mejorarla. Y así sucesivamente. Siempre sin dañar el orgullo del autor, que, aunque hubiera discrepancias, su opinión era muy considerada, pues

haren iritzia oso preziatua zen, bagenekielako ezagutzaz eta sentsibilitatez betea zetorrela.

Gaixotasuna

Gaixotasuna isilik eraman zuen; triste bazegoen ere, adoretsu gogoratzen dut; gaztea izanik ulertzen saiatzen zen, baina aldi berean harritu egiten zen medikuntzak berarentzako erremediorik ez zuela ikusita.

la sabíamos cargada de conocimiento y sensibilidad.

Sobre su enfermedad

En su enfermedad, llevada silenciosamente, le recuerdo animoso dentro de su tristeza y con su juventud esforzándose en comprender, al tiempo de que se extrañaba de la impotencia de la medicina para con él.

Joaquín Loidi



01



02

01. Alfredo Loidi.
Umea / Niño.
Sanguina barra paperean /
Barra sanguina sobre papel.

02. Alfredo Loidi.
Umea / Niño.
Conté barra paperean. /
Barra conté sobre papel.

Agur Moises.

*Abdon Juaristi Legorburu pintoreak
(1948-1997) 1997ko martxoan
Ariz-Ondo aldizkarian argitaratutako
testuaren laburpena.*

Moises Eguren -Bergaran oso ezaguna- apai-za zen, baina apaiz-bokazio tinkoarekin batera horren adinako beste pasio bat zuen: artea, eta bereziki pintura. Ilusio itzelaz praktikatu zuen, beti hobetzeko bidean, era eredugarrian; bere izpiritua, bere barru-izatea eratzen zuten poesia, zintzotasuna eta sentiberatasun delikatu guztia ageri-agerian daude bere sortze-lanetan.

Pintura-zaleek izan ditugun tailer kolektibo guzietan, guztiok ibili gara Moises Eguren ardatzaren bueltan. Hark ez zuen maisu izan nahi, laguna baizik, beti edozein gairi buruz jarduteko gertu -arte-arlokoa izan, giza ar-lokoa izan-, eta beti gure lanez arduratuta. Horrela, hasiera batean, beti laudatzen zituen sorkuntza-prozesuan zeuden obren alderdi positiboak; eta gero, era sotilean, delikatuan eta, batez ere, zintzotasun osoz, ikusten zituen akats edo desadostasun guztiak adierazten zituen, horiek eztabaidatzeko eta bideratzen saiatzeko. Aholkulari bikaina zen; gaztetan harekin ibili ginen pintore guztiok asko zor diogu.

Haren koadroak alaiak ziren, ederrak; pintura kolorista, garbia eta gardena zuen. Sentimentuz egiten zuen lan, apal-apal, bere burua jeniotzat hartu gabe, baina jenio baten emaitzak lortzeko ahaleginetan. Sentsibilitate itzela zuen, bai gizaki gisa bai artista gisa, eta horrekin batera izan zuen konstantzia eta egoskortasun sanoarekin bene-benetako arte-lanak sortu zituen.


Agur Moisés.

*Extracto del texto del también pintor
Abdón Juaristi Legorburu
(1948-1997), en la revista Ariz-Ondo
de marzo de 1977.*

Moisés Eguren, de sobra conocido por todos los bergareses, sacerdote de vocación inquebrantable, llevaba unida a ésta, otra no menor pasión, la artística y en especial la pintura. La practicó con enorme ilusión y ejemplar trayectoria de superación, aflorando en sus creaciones, toda la poesía, sinceridad y delicada sensibilidad, de la que se formaba su espíritu, su ser.

En los diferentes talleres colectivos que los aficionados a la pintura hemos tenido, Moisés Eguren ha sido el eje en cuyo entorno nos movíamos todos. Sin pretensiones de maestro, sino de compañero dispuesto a dialogar sobre cualquier tema artístico o humano, sentía una constante preocupación por nuestros trabajos, elogiando, en principio, los aspectos positivos de las obras en creación y después, sutil, delicada y sobre todo, sinceramente, planteando todos los defectos o disconformidades que él veía, para discutirlos y procurar solucionarlos. Fue un gran consejero, al que todos los jóvenes pintores, que tuvimos la suerte de tenerlo con nosotros, debemos mucho.

Sus cuadros eran alegres, bellos, de pintura colorista, limpia y transparente. Trabajaba con sentimiento y humildad, la humildad del que no se cree un genio, pero se esfuerza por conseguir los resultados de éste. Su enorme sensibilidad, humana y artística, unida a su constancia y sana terquedad, le llevó a crear verdaderas obras de arte.



Interes berezia zuen impresionismoko eta postimpresionismoko maisuengan. Haien ezaugarri batzuk islatzen dira Eguren pinturan -pintura garbia eta gardena-; baina gero ondorengo beste arte-tendentzia batzuen eraginekin ere aberastu zen -hala nola, kubismoaz; baina inoiz ez abstrakzioaz-.

On Moises, oso eredu ona izan zinen guretzat; maitasun handiz gogoratuko zaitugu beti.

Mostraba un gran interés por los maestros del impresionismo y posimpresionismo. Algunas de las cualidades que poseían éstos se reflejan en su pintura, limpia y transparente, Enriquecida con influencias de otras tendencias posteriores, como pudo ser el cubismo, pero nunca la abstracción.

Nos diste un gran ejemplo y te recordaremos siempre con cariño.

Abdon Juaristi

Autorretratua / Autorretrato.
65x46cm.

Zabalotegiko gogorapenak.

"Promoción Cultural Vergaresa" eta "Alkartu-Nai" elkarteeek oso era aktiboan eta eskuza-baltasun osoz hasierako urratsak eman zituzten Bergaran hainbat ekimen herriko martxan jar-tzeko -gerora, eta gaur arte, udalaren inguruan finkatuz joan diren ekimenak, hain zuzen-. Herrian geneuzkan premia kulturalen zerrenda luzearen barruan, guretzat pinturarako lokal bat lortu izana oparia izan zen, gure nahia errealita-te bihurtzea. Gutako asko oso-oso gazte ginengen Zabalotegiko pintura-tailerra hasi zenean; 1966-1972 arteko urteak ziren.

Arratsaldero, gogo biziz, zain egoten ginengen irakasleekoren bat -Simon Arrieta, Miguel Okina edo Fernando Azkargorta- gure lanak zuzen-tzera etorri arte.

Haietan eman genituen lehenengo urratsak marrasketan eta pinturan. Nire ustez, koloreari da-gokionez, Fernando Azkargorta ematen zituen irizpide gehien eta argienak.

Maitasunez gogoratzen dut, halaber, Mariano Berasategi; bere borondatez eta musu-truk lokaleko atezain-lanak egiten zituenta; behin baino gehiagotan egokitut zitzaiion neska-muti-koen iskanbilak baretzea.

Igeltsuzko estatuak marrazten genituen, eta pinturan bodegoiak eginez hasi ginengen. Txandako irakaslearen bisita eta zuzenketak oso garrantzitsuak ziren, baina nire ustez ikas-kideen arteko harremanetatik ere asko ikasten genuen.

Alde batetik, hamabost urte inguruko gaztetxo batzuk geunden, ikasteko grinaz, eta, bestetik, jende helduagoa, esperientzia gehiagorekin; eta elkarren arteko bizikidetza oso aberatsa eta emankorra zen.

Recuerdos de Zabalotegi.

Las asociaciones Promoción Cultural Vergaresa y Alkartu-Nai, de manera activa y generosa, estuvieron al origen de la puesta en marcha de multitud de iniciativas populares en Bergara, que fueron consolidándose hasta hoy en torno al Ayuntamiento.

Dentro de la extensa lista de necesidades culturales que teníamos en el pueblo, el logro del local de pintura fue para nosotros una bendición, un deseo hecho realidad. Muchos éramos muy jóvenes al inicio del taller de pintura en Zabalotegi, hablo de los años 1966-1972.

Cada tarde esperábamos ansiosos que alguno de nuestros profesores, Simón Arrieta, Miguel Okina o Fernando Azkargorta, viniera a corregir nuestros trabajos.

Con ellos iniciamos nuestros primeros pasos en el dibujo y en la pintura. Opino que en lo que respecta al color Fernando Azkargorta era el más asiduo y claro.

Guardo también un recuerdo cariñoso de Mariano Berasategi, que por amor al arte ejerció benévolamente de conserje en el local y en más de una ocasión le tocó poner orden entre la chavalería.

Dibujábamos estatuas de yeso y nos iniciamos a la pintura representando bodegones. La visita y las correcciones del profesor de turno eran importantes, pero creo que aprendímos mucho de la relación entre compañeros.

La convivencia entre quinceañeros deseosos de aprender y gente más madura, con experiencia, era muy fructífera.



Euskal Bodegoia / Bodegón
Vasco.
54x65cm.



Pintore moduan, arriskuak hartzeko gai.

Eguren pintorea, lanean ziharduenean, ez zen mantentzen lan egiteko jarrera edo modu ero-soetan. Bazekien toki konfortagarri horietatik irteten eta bere obra gauzatzerakoan arriskuak hartzen; sarri egiten zuen. Experimentuak eginez, batzuetan kolore-paleta murriztuz, edo pigmentu zuririk gabe pintatzen saiatuz.

Larrosak / Rosas.
54x65cm.

Pintor capaz de asumir riesgos.

Eguren era un pintor que en su quehacer no se instalaba en actitudes o maneras cómodas de trabajar. Sabía salir de esos lugares confortables y asumir riesgos en la realización de su obra, era algo que hacía de manera habitual. Experimentando, reduciendo a veces la paleta de colores o intentando pintar sin la presencia del pigmento blanco.

Berrikuntza-ahaleginetan asmatzea baino, hortik haratago, bilatzeko jarrera hori izan zen bere lanaren bilakaeraren ezaugarria, amaiera-amaierara arte. Ez zitzaion gehiegi axola bere lana zeharo identifikatuko lukeen estilo bat finkatzerik. Ez da hainbeste zein gai adierazten duen pintura-lanetan, baizik eta nola adierazten duen. Koadro baten argumentu moduan simple iruditu daitekeen gai bat, Eguren tankera gauzatzu gero, pintura transzendenten bihurtzen da; hau da, hamarkadak iragan eta gero ere, oraindik indarra mantentzen du eta sakon hunkitu. Larrosa bat izan daiteke, besterik gabe.

Eguren ikasle gazteenak, jarrera hori ikusita, animatu egiten ziren historian zehar pintatzeko egon diren modu ezberdin guztiak esploratzea; ofizioa era pertsonalean eta kritikoan ikastera.


Esa actitud de búsqueda, más allá de los aciertos en sus tentativas de innovación, caracterizó la evolución de su trabajo hasta el final. La consolidación de un estilo que identificase plenamente su obra parece que no le importara mucho. No son tanto los temas que aborda en su pintura, sino cómo los aborda. Un tema que puede parecer simple como argumento para un cuadro, abordado a la manera de Eguren, se convierte en una pintura trascendente, que décadas después mantiene su vigencia y emociona intensamente. Simplemente una rosa.

La observación de esa actitud por sus alumnos más jóvenes animaba a éstos a la exploración de las muy diversas maneras de pintar que en la historia ha habido. A un aprendizaje personal y crítico del oficio.


J.L. Azkarate



Larrosak / Rosas.
54x65cm.




01



02

01. Lora sorta /
Ramo de flores.
46x38cm.

02. Larrosak / Rosas.
33x25cm.




01



02

01. Bodegoia / Bodegón.
38x46cm.

02. Larrosak / Rosas.
46x38cm.



Bodegoia / Bodegón.
46x55cm.

Moises Eguren, egia partekatua.

Umetan, arratsaldetan, apaiz bat pasatzen ikus-ten genuen; gorputzera arinekoa, gazte indar-tsu haren ibilera bizkorraz sotana beltz erosi be-rria astindu egiten zen; ez zen altuera handikoa, ezta gutxikoa ere; larruzala argia, burusoiltasun goiztiarra eta aurpegi maitagarria, irribarretsua, begirada zuzenekoa. Hark gu ere antzematen gintuen; 50eko hamarkadan -oraindik anima-liaz bultzatutako azken garraioak zebiltzanean-, kaleko zoladura klarionaz margotzen ibiltzen gi-nen; eta apaiza, behatzaire eta pentsakor, geldi-tu gabe, etxerako bidean joaten zen.

Handik urte batzuetara, apaizaren aurrean, ikatz-ziri beltz eta fin bati begira geunden; ikatz-ziria azalera zuri baten gainean zegoen, apaizaren atzamarren artean tinko eta irmo hartuta, eta ikasle hasiberri en arreta zeharo harrapatuta. Eta egunsentian irudiak sortzen diren antzera, han ere agertzen zohoazen, mai-suaren sentsibilitateak papera ferekatzen zuen heinean; non, kolore bakar batez, gogora ekar-tzen zigun -buruan aktibatzen zigun- koloretako mundu oso bat.


On Moisese pintore-estudioa herriko erdigunean zuen, ganbara batean, Simon Arrietako Dorrea izenarekin ezagutzen den altuera handiko eraikinean; izan ere, plaza horretan, bron-tezko busto batek Simon Arrieta artista ekar-tzen digu gogora -Eigurenen maisua izan zen eta baita gu guztiona ere-. Altuera hartatik, Bergarako erdigune osoa ikusten zen, zelai berdez eratutako zirkulu zabal batek inguratuta, atmos-fera dardaratsuan, guztiz eder eta harrigarria, gehienetan itxura lainotsu eta tristeaz, baina lilu-ragarria -kolore samur hark liluratu egiten zuen On Moises-; Erdi Aroan mugarritutako ortuak ere ikusgai; eta zirkulu handiago batean, be-riz, udazkeneko urre koloreko sasoi berantiar

Moisés Eguren, la verdad compartida.

Éramos niños cuando por las tardes veí-a-mos pasar al cura de recién estrenada negra sotana, agitada por la ligera marcha de aquél joven vigoroso y de ágil complejión; no era ni alto ni bajo, de piel clara, temprana calvi-cie y afectuoso semblante, risueño y de mirada sostenida; nosotros no le éramos ajenos cuan-do sobre el pavimento de la calle en aquellos años 50, cuando todavía circulaban los últimos transportes a tiro de sangre animal, pintábamos de crayón el pavimento de la calle y él, obser-vador y pensativo, sin detenerse iba camino de su casa.

Años más tarde, ante él, contemplábamos un negro y delicado carboncillo, que flotaba so-bre una blanca superficie, fijo y decididamente tomado entre sus dedos y que había captado la atención de los jóvenes aprendices. Y como surgen al alba se iban perfilando las imáge-nes, acariciado el papel por la sensibilidad del maestro; donde con un solo color se evocaba y activaba en nuestra memoria todo un mundo de color.

Tenía Don Moisés el estudio de pintor en la azo-tea del céntrico y alto edificio conocido como Torre Simón Arrieta, en la plaza del mismo nombre, donde un busto en bronce recuerda al artista, al que fue maestro suyo y de todos nosotros. Desde lo alto se divisaba el núcleo de la población de Bergara y cómo en un gran círculo lo rodeaban los verdes prados en su trémula atmósfera, extraordinariamente her-moso y sorprendente, de aspecto brumoso y triste las más veces, pero maravilloso y cuyo tierno color le encantaba; huertas que en el Medievo fueron trazadas y en un mayor círcu-lo los montes de color violáceo se elevaban sobre los bosques de castaños y robles,



Zakurrak katairik gabe /
Perros sin cadenas.
130x97cm.

hartan koprez tindatutako gaztainondoen eta haritzen basoen gainetik, more kolorezko mendiaik gailentzen ziren. Han, zeru-lurren artean, inguru bitxi haren koloreetan murgilduta eta lilituratuta, haren pasioaren jolas eta euskarri zen pinturaren jardunari eskaintzen zion denboran,

teñidos de cobre en la tardía hora dorada del otoño. Allí, entre el cielo y la tierra, fascinado y embebido por los colores del pintoresco conjunto, dedicaba su tiempo disponible en la práctica de la pintura, que era juego y soporte de su pasión, cuando la decisión su-

haren izpiritu eskuzabalak horrela erabakita -eskuzabaltasuna ez baita bateragarri gehiegizko esklusibismoarekin-, guri ere eskaintzen zigun denbora, erakusteko eta orientatzeko.

Oso gizon zentzuduna zen; ez zuen buruz pintatzen, ez zuen fantasiarik; poesia sortzen zuen, baina haizezko dorrerik egin gabe. Fede sakon-sakonetik sentitzen zuen bere lanak ez zuela bakarrik norbanako baten destinoa edo justifikazioa betetzen; beste zerbaite ere betetzen zuela; zerbaite gizatiarra, orokorra, beharrezkoa. Bazekien bere bizitza zehatzak -bere xehetasun apalenean- zentzua zuela, eta gertakaririk txikiena ere unibertsoko gertakari handienarekin lotuta zegoela.

Bere pintura ez da oldarka eta zoraldian egina; era geldoan, neurtuau eta eutsian egiten zuen; eta askotan saiatu ondoren, orduan aplikatzen zizkion kolore eta ñabardura ugari, horrelako volumen kromatiko hain ederrak lortu arte. Arreta osoa jartzen zion, horrela lortzen zuen halako atmosfera hunkigarria, delikatua; argitasun baketsu eta atsegineko pintura, impresionismo francesaren tankerakoa, koloreak naturalismoaren menpe, berrikuntza-handikeriarik gabe. Guztiontzat, eta bereziki On Moises ezagutu ez zutenentzat, haren lekukotza gelditu zaigu, hau da, sentiberatasun-gaitasuna hezi egin behar dugula -eta gure garai hotetan, gainera, benetako premiaz-. Eta horrekin batera, pintura-bilduma hotetaz gozatu ahal izango dugu; izan ere, hau da On Moisesek bizitzaren ibilbide-erdian heriotzak eraman aurretik utzi ahal izan zigun ondare plastikoa; oraindik irudimenean milaka koadro borborka izango zituenean, eta bihotzean gar bizi ederrak. Gizaki modernoak bere bakardadean haren ispiluan begiratu beharko luke.

blime de su espíritu generoso que no era compatible con un excesivo exclusivismo, decidía dedicar su tiempo en nuestra orientación y aprendizaje.

Era un hombre con los pies en el suelo, no pintó de memoria ni fantaseó, hizo poesía sin construir castillos en el aire. Sentía con profunda fe que su trabajo no cumplía sólo el destino y la justificación de un individuo, sino algo humano, general, necesario. Su vida concreta, en su particularidad más humilde, sabía que estaba penetrada por un sentido y que el más minúsculo acontecimiento estaba engranado con el gran suceso universal.

Su pintura no la realizaba con ímpetu y arrebato, era de ejecución lenta, medida y contenida y después de muchos tanteos era aplicada en la variedad de colores y de matices, hasta alcanzar esos hermosos volúmenes cromáticos; puesta toda su atención lograba esa atmósfera vibrante, delicada; pintura en apacible y amena luminosidad, a la manera de los impresionistas franceses, los colores sujetos al naturalismo, sin pretensiones innovadoras. Para todos, especialmente para los que no conocieron a Don Moisés, nos queda su testimonio, que es, educar la facultad sensible, urgente necesidad de nuestro tiempo, además de la satisfacción de poder disfrutar de esta colección de pintura, que es legado plástico de un hombre sorprendido por la muerte en mediana edad, cuando en su imaginación bullían miles de cuadros y en el que ardía un corazón en bello entusiasmo y es espejo donde el hombre moderno en su soledad ha de mirarse.

Ambrosio Ugalde

Kolorea.

Gutakoren batek dio Bergaran pintura-arloan iraultzarik egitea ezinezkoa dela. Izañ daiteteke.

Simon Arrietaren estiloaren ondoren -hark paleta oso neurtua zuen, entonazioa grisen gama aberatsean oinarritua, eta beti tokiko kolorera gerturatura-, pintoreen hurrengo belaunaldiak pintura koloristago bateranzko bilakaera sotil bezain tinkoa hasi zuen. Hauek ziren: Migel Okina, Joakin Loidi eta baita Moises Eguren ere.

Pintatzeko gaia aukeratu ondoren, Moiseseik ia beti ikerketatxo batzuk planteatzen zituen paisiekin. Maisu handiei eta haien lengoaiak piktorikoei buruz zuen ezagutza itzelean oinarri harutta, esperimentu puntualak egiten ausartzen zen, batzuetan konposizioan zentratuz, beste batzuetan akorde kromatikoetan.

Oreka formal bitxiak planeatzen zituen, bai formen simplifikazioaren edo sintesiaren bitartez, bai formen konposizio-banaketaren bitartez. Askotan, aukeratutako gaiari zein kolore-paleta egokitzentzitzaion ikusitakoan, nabarmen gelditzen zen Moisesen ausardia, kolore oso aseak erabiltzen baitzituen, hotz-beroko kontrasteak uztartuz eta baita kolore osagarriak ere.

Garatu beharreko gaiaren arabera, askotan ere paletan oso aukera kromatiko urria ezartzen zuen eta, ingurugiroko nolabaiteko monokromia horren eraginez, gris tonalitateetako sentzazio atmosferiko oso sotilak lortzen zituen. Garbi ikusten da koadro baten proiekta buruan zuen bakoitzean ariketa bakar, bakan eta ezberdin gisa planteatzen zuela.

El color.

Comenta alguno de los nuestros, que las revoluciones en materia de pintura en Bergara, son imposibles. Puede ser cierto.

Tras el estilo de Simón Arrieta, de paleta tan comedida, de entonación basada en su rica gama de grises y siempre acercándose al color local, la siguiente generación de pintores inicia una sutil pero decidida evolución hacia una pintura más colorista. Hablamos de Miguel Okina, de Joaquín Loidi y también de Moisés Eguren.

Una vez elegido el motivo a pintar, Moisés casi siempre planteaba pequeñas investigaciones con sus paisajes. Basándose en su vasto conocimiento de los grandes maestros y sus lenguajes pictóricos, se atrevía con experimentaciones puntuales, centrándose a veces en la composición y otras en los acordes cromáticos.

Planeaba raros equilibrios formales por medio de la simplificación o síntesis en las formas y también con la distribución compositiva de éstas. Con frecuencia la adecuación de la paleta al tema elegido dejaba muy clara su osadía, empleando colores muy saturados, en diálogos de contrastes de frío-caliente y también con colores complementarios .

Dependiendo del tema a desarrollar, también era muy dado a establecer una selección cromática muy reducida en su paleta y esa especie de monocromía ambiental le llevaba al logro de sensaciones atmosféricas muy sutiles en grises. Está muy claro que cada cuadro lo planteaba como un ejercicio, único y distinto cada vez.



Errotalde Jauregia /
Palacio Errotalde.
65x50cm.

Eigurenen koadro ausartenetako pintzelkak aztertzugero -landu zituen genero guztietatik edozeinetan-, asmo esperimentatzaile bera ikusten jarraitzen dugu. Erabiltzen zituen brotxak latzak eta lauak ziren, tamaina ertainekoak, pinturaz beteak; eta horri esker, koadroa eraikitzeo pintzelkada karratuak zerabilzkien, "pixelatuak", bata bestearen ondoan jarrita, eta antolaketarako ere oso moldakorrak. Koadro batzuetan, karratu-formako pintzelkada ez da asko agertzen, eusten egon izan balitz bezala, pintzel-ukitu oso ortogonalekin; baina beste batzuetan, berriz, Moiseseik kadentzia erre-pikakor dinamikoago eta ozenagoen aldeko apustua egiten du, oso gama koloristak erabiliz eta argilun-soluzio oso ausartak formulatz. Eta horri gehitzen badiogu pintzelaren joaldi erre pikakor, arin eta bizkorra, horren eraginez bere lan askotan pinturari kadentzia-erritmo oso musicalak atera ahal zaizkio.

